

# Ikastera legez beartu

Erri baten gora-maila, jakitez eta ikasiaz eramaten da. Ikastetxe ta nolanaiko eskolak ugaldu ezkerro, erriak aurrerapena iristeko errez-tasun aundia izan oi du. Ezjakinez betiak dagon erria, berriz, errukarria izango da.

Amaka lege eman oi dira *garrantzi putxlagokoak*. Milla uskeri, zi-gorpean agintzen dira; zakarrak edozein lekutan botatzea ta beste on-olako txikikeriak, multaz zigortu oi ditugu.

Erriak txukun gordetzea, ederki dago ta beste agindu txiki asko ere ezdira gaizki ehortzen, errien antolaketa bere bidez eramateko. Ontzat ar ditagun, beraz, agindu ta lege o'ek guziak; baina oien aldan, askoz bearragoa da erri ori ongi eskolatua izatea txikitatik.

Gai ontan, bear aña egite al-da gure errietan? Lenbizi, esko'a na-koa ba al-degu gure artean? Aur guziak al-dute aukera l'nen-o ikasal-diak egiteko? Amaka errietan palta da maixu, naiz maistra bat, Aru-tzago, ikastolarik gabe bizi dira. Ta bitartean beste gauzetan eralgitzen da alperrik dirua.

Gizartea beti gerrate-bildurpean bizi izan da. Zenbat gastu izan de-gu a'de ontatik gure kaltean? Pakerako ta jendea eskolatzeko bear zan dirua, gizonen artean gerrate bildurak eta alkarrekiko konpianzarik ezkat jaten digu.

Onela etorri gera gizaldietan erriaren aurrerapena atzeratuaz, gu zion kaltean. Ez al-da ordua iritzi, irakaskintzari leku ge'ago eman de-zaiozun gure legedietan? Zoritzarrez, munduko pakea bear da ortarako, ta gaurko munduak ezta pake-oinarririk bildurra gaitzeko. Gizartea al karren susmo txarrez galduta bizi dan bitartean, erriaren ikas-maila atzeratua izango degu erri askotan.

Gero, or ikusiko ditugu esko'arik gabeko gizonak, ezertarako gauza ez dirala, beren bizibidea moldatu ezinik, pioi lanetarako bakarrik gai dirala. Ta berak naikoa ezdirala, beren etxeok ere, bizi-ehinaren az-pian or geldituko dira negargarri.

Gaitz onek bere sendabidea bear du, ta sendabide bakarra, irakask-intza ugaltzea ta erreztea izan bearko luke. Jakiña, aurak eskolarako gogorik ez dute berez ekartzen; eta beren urtetan eskolarik izan ez du-tzen gizon eginak ere, ikastearen alde onik ez dute ezagutzen. Beraz, ba-tzuek aurren okerkeriz, eta besteak gurasoen ezjakinez, or geldituko zaizkigu beren buruak jakitez ornitu gabe.

Zer egin? Lenbizi eskola ta maixu maistrak ugaldu, alde guzietarako lain izan ditezen, eta gero, naikoa eskola ta ikastetxe degunean, aurren eskolaztea, legez babestu. Eskolara joaten ez diranak, multaz zigortzea, beste gauza askotan zigortzea baino egokiago iruditzen zaigu.

Ta ori da bidea: aurren eskola aldía legez babestea ta zigortzea.

Guraso bakarrak eta aur okerrak ez dute beste zuzenbiderik. Ta au ziguru, zigortutakoan onerako izango da aurrena Ezpaita gauza ne-gargarriagorik, eskola gabeko gizon, naiz emakumea baiño.

## ESKUTITZAK

# ASPALDIKO SOZIALISTA EIBARTAR BATI

Atera berria dezun "Metafisica a Urcola" liburua, burutik burura irakurri det, eskutatik utzi gabe, erderaz esatan dan bezela.

Etzindudan ezagutzen, enaiz zurekin mintzatu, inoiz ere; baiñan idatzi au leitu ondoan, antziñako adiskide zaitudala deritzait. (Barkatu ateraldia).

Zure ta nere gogaketak, sail berean omen dabilta. Gauza bat ipintzen dezu filosofian erdian, gizona, alegia. Personalista zera zu, ni bezela, oker ez banago.

Izan ere, Emmanuel Mounier idazleak, au idatzi zuen, 1946 urtean: "On peut être chrétien et personnaliste, socialiste et personnaliste, et, pourquoi pas? communiste et personnaliste, si l'on est communiste d'une façon qui ne contredise pas aux valeurs fondamentales de la personne".

Eta, beste toki batean ("Qu'est-ce que le personnalisme?" liburuan) au ere idatzen du berak: "Personnalisme n'est pas opposé à socialisme ou à communisme. Tout depend de quel personnalisme, de quel socialisme, ou de quel communisme il est question".

Arrezkerro, naiko euri egin du, eta nik ez det oso ondo ulertzen, gaurko egunean, egiazko komunista eta benetako personalista batera izan ditekienik. Dana dala, Mounier'ek esan zuelako, bere arrazoiak izango zituen ortarako.

Zure gizonari buruzko ideiak zabalak dira. Errea-

litate guztieta —naiz ikusgarri, naiz ikusgaitz— zabal-tzen da zure pentsaera.

Derrigorrezkoa da, izan ere, orrelako zabalatasuna, egiazko personalismo guzian.

Bestaldetik, zurentzat, persona ezta astrazio bat, zer-bait guztiz konkretua baizik.

Batez ere, liburu orren, irugarren ta laugarren atzal-buruetan, au da "El mundo visto desde dentro" eta "Cuando el hombre es el sujeto de la experiencia" izenekoetan, argiro ikusten da zure personalismoa.

Gizon unibersalaren aldetik bizia ikusi ondoren, zure baitan sartzen zera berrito, eta gizonaren barneko prolemak, berriz ere aztertzen dituzte. "El hombre que ahora discute en esto que va a seguir, soy yo, yo mismo, vestido de carne y hueso, que vivo aquí en este lugar en que sufro" diozu deblanki.

Zuk egindako beste liburuan, "La experiencia socialista en España" deritzan idazkian, tituloari itz abek ezarri dizkiozuezt oartu nait: "vista desde mi pueblo". Bat natorkizu: gauza guztiak, baita ere sozialismoa, gure erriaren aldetik ikusi bear ditugu, nai ta naiez.

Zure Eibarreko "euskeria internacionalaz" egindako liburua ikusi narik nago.

Agur adiskidea. Espero det zure ezagutza laster egingo dedala, personalki.

Carlos SANTAMARIA

# ILLUNONDO

Bizi edo erdi bizi. Izan ere nere gela obe zan abereentzat kristau ba-tentzat baño. Etxea bai kanpotik bai barneetik zeari zikiña. An bizi giña-nok beartsuak giñan. Ni geien, nun-bait, Etxeak lau solairu zeuzkan. Ni ganbaran nun logela.

Malladia igotzen asi nintzan. «Mi-nutu baten barruan dana itzali da. Negar geiagorik ez, bizitzaren tra-gedia itzali. Pakea, pakea muga ga-bekoa».

Nunbait jatekoak kalte egin zi-dan. Irugarren bizitzara eldu baño len botaka asi nintzan. Indarrez es-ku-bandari eldu nion.

Laugarren bizitzara eldu arte be-tikotasuna iruditua zitzaidan. Ate ondoan neskatilla bat zegoan ese-rita. Ia lo-kuluxkan. Zortziren bat urtekoa edo.

Itz bat egin gabe, bizitzari azken agurra egingo banion bezela, nere sakelatik goxoa atera ta eskuratu nion. Nere ganbarako lendabiziko malla igo nun.

«Eskerrik asko, Jaumal». Itz xalo aiek erriatetik dardaratu ninduten. Umeari begira gelditu nintzaion.

«Nere ama lanean da — jakki zuan, nerekin baño bere buruarekin itz egiten izan balitz bezela eta go-xoaren papera bere beartzeokin bo-

robilduaz. «Ez dakit noiz etorriko ote dan». Ixillaldi bat. Umea neri begira ta ni ari.

«Jauna —galdetu zidan, nigana ondotaraz— ba al dakizkizu ipui-txoak?»

Ez dakit zenbat denbora bear izan nun ari erantzuteko. «Bai, ba dakizkit. Politak gañera».

«Oh, kontaizkida, kontau!» Umea nere gelara jarraitu zitzaidan. Alkian exeri nintzan eta negarrari eman nion. Negar aundia, muñe-rik ateratzen zitzaidana. Burua es-kuen artean izkutatu nun.

Umea kokilduta gelditu zan. Ge-ro eskuak apergitik kendu nai ziz-kidan. «Zergatik negar?» Nik ez nion Ezer erantzun. Bera ere negar-rez asi zan.

Umearen ta nere malako txuka-tu nion. Umea nere behaletan ese-ri zan. Ipuiak kontatzen asi nintzan, aspertzaka. Bat batean beian zara-ta entzun nun.

«Zure ama etorri da. Joan zai-tez».

«Bai, baña biar ere kontatuko al didazu beste ipuiren bat?»

Negarrari ezin nion eutsi: «Bai, biar ere — erantzun nion.

GOMIGA

# BAINA ZERGATIK ETA ZERTAKO EUSKALDUN?

Euskalerriko aize giroa ekartzen dit Zeruko Argiak, datorrenero, eta poz amorratu batekin irakurtzen dudala esateak ez da atzerria probatu duen inor arrituko. Noizean bein zilbor begiralezakegi jotzen badut ere: Barka diteke au, alare, zilborrak gorpuztean estetikaren aldetik duen zeregin berebizikoa —beste zenbait alde ez aitzateko!— begiratzen ba-dugu.

Eta beste zenbaitetik artu duten soka zaharrari (ez beintzat berria) eldu nai nioke nik ere. Olaetxea, Kalzada, Laspiur eta adiskide San Martin-en baimenarekin.

Euskerarik gabe euskaldun iraungo ez dudala garbi dago niretzat. Ala erakutsi zidaten bizitzarekin izkuntza eman zidatenek, eta ala pen-tsatu dut aspaldian makina bat gogatu ondoren. Beraz, O'atxeak esan-dakoa esan nai zueña bera ote den pentsatzea onbera bezain tonto izan-tea ote da? Jhartzak-e esaten baizuen euskaldunak on izate utsez tonto raso bihurtu gerala, edo zerbait alakotsu.

Askomoduzko ideak argitasunez ematea ez da errez; orregatik iru-ditu zait bearbada desegoki espresatu zela Olaetxea bere itzetan (edo-zeñi gerta dakiokena, mutu ez dagoen edozeñi) eta, beti bearbada, auzi au berriro asieratik arteza ez ote den komeni. Batak ala besteak barka bekite amesetan ari baniaz.

Ba da, ordea, ortik aurrera beste zerbait oraindik, esan izan den guztiarekin alare argitu gabe gelditu dela esango nukeena. Euskerarik gabe euskaldun ez gerala esanda ere, zergatik euskaldun irauten alein-zin bear dugun galde diteke. Diteke, eta galdetzen da. Zergatik opajdu bear zaizkion ideal oni ainbeste nuke. Izan ere, batek baiño gelagok atera dit zerako au: euskal izatea gaitzearekin ez gera izate gabe gel-dituko, beste izate berri bat gureganatuko dugu.

Merezi ote du, orduan, gure izateari eustearren lerregiteak? Zer-gatik? Nik, egia esateko, askotan esan ditut ni neu ere zerao konben-zitzen ez nauten arrazoiak. Eta auxe makta, alakoren batean besteak konbenzitu ditudala ere uste izan dut, erraminta triste onekin.

Ez dut uste Laspiur-ek eta San Martin-ek galdera oni konformis-tendako karamelu iritziko diotenik. Konformista ez izatea justifikatze-ko egiten dut nik beintzat.

Ez da naikoa, niretzat, nai duenak nai duenerako eskubide duela esatea, euskeraren alde jardun nai duenak aurrerako libertate duela. Ezta ere, biotzaren arrazoi izkutuak izentatzen, NIK, marxista izan gabe, ez ditut oso ongi konprenitzen obligazioen luze-zabala berditzen ez dituzten eskubideak. Kapritxoak sortzen dituen —edo oinarritu, nai bada—, es-kubideak ez dute batera bai, bearrak sortzen dituzte eskubide giardunak benetakoak.

Bildur naiz itzek salduko nautela. Ez dute uste, dana dala, eran-tzuteko mesede egin nai didanak galdera au lehenengo bider entzun duenik. Beraz, aisa igarriko dio galdetu nai dudanari.

Eskolak bearreko direla ere argi dago, zenbait gauza iritxi nai ba-dira beñepein. Arrazoi osoa du bal. Gomiga-k (merezi ote dizut orain-diki adiskide izena?) euskaldun intelektuoen egoera mixerablea aitor-tzean, eta biarkoa zuzenago presta dezagun oiur gaitzen. Baiña artaz, bilginguismoak (eta zein bilginguismo) euskerari egiazko bizitza bizi bat aseguratzen ote dion galdetuko nuke. Bizitza indartsu bat, ez triste bizitza, ez sekula bukatzen ez dan agonia bat. Ala baiño askoz obe il.

Zeruko Argian orain arte eta beste euskal idazle batek garbi utzi digute: Euskal erria euskerak egiten du, ez bestek. Beste galdera bat gelditzen da: zergatik euskaldun jarraitu eta zertako?

José AZURMENDI